

Rserba: BALOREZKO PROPOSAMENA

SARRERA:

- Ze behar edo arazo konpontzen duzue?
 - Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?
- Balio kualitatiboa
 - Funtzionala (azkartasuna eta erosotasuna)
 - Pertsonen arabera egokitzen da, menua, ordutegiak, ...
 - Berrikuntzak eta eguneratutako informazioa
 - Dohainiko APP-a



AZALPENA:

Rserba aplikazioa, Kiex taldeak sorturiko ideia bat da, zeinen bitartez herritarren erosotasuna bilatzen den jatetxeetako erreserbak egiteko orduan.

Pertsona batek etxetik kanpora jan nahi duenean, ohikoena jatetxetara deitzea da lekua erreserbatzeko edo menua galdetzeko. Gure aplikazioaren esker, **ez dago beharrik jatetxetara deitzea**, aplikaziotik irakurri ahal da menua, baita erreserbatu ere. Aplikazio honek beste aplikazio batzuek ez duten baliabideak ditu eta horrek egiten gaitu berezi, gure aplikazioak erosotasuna eta azkartasuna eskaintzen duelako.

Horrez gain, gure aplikazioak **pertsona bakoitzera egokitzen** dira eta bakoitzaren arabera desberdinak izango dira. Beraz, aukera desberdinak ditu jatetxe bat aukeratu nahi duen pertsonak, guztia beraren gustura.

Honetaz gain, prezioari dagokionez, gure **aplikazioa dohainik izango da** baina

FREE

kontuan hartu behar da harpidetu ahal direla eta hau egiten badute gauza gehiago eskainiko dugu harpidetu direnei.



Askotan gertatu zaigu jatetxe batera deitu dugunean, ez digutela hartu edo menua ez genekiela, gure aplikazioaren esker, hori ez da berriro errepikatuko. Jatetxearen menua ikusgai egongo da guztientzat eta aplikaziotik erreserbatzea posible izango da. Lehen aipatu bezala, pertsona bakoitzera egokituko da beraz, alergia baldin badaukazu zerbaiti hori adierazi ahal duzu eta ez zaizu agertuko janaririk hori duena. Gutxi ez balitz, informazio berri egingo zen eta aplikazioa **eguneratuta** egongo da.

Gure produktuaren balio kuantitatiboa (prezioa), lehen esan bezala, **dohainikakoa** da; izan ere, aplikazioa deskargatzeagatik ez da ezer ordaindu behar. Baina harpidetuta bazaude hileroko 3,5€ ordaindu beharko duzu. Aldiz, balio kualitatiboa kasu honetan **egokitasuna** litzake, eta honi esker, pertsona bakoitzari informazio desberdina iritsiko zitzaion.